


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ERRONDA 6



Egilea eta data: Gurruchaga; 1911

Deskribapena

Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituena, gehi hiru jasodura: lehena, 1913koa, fatxada planoan eta beste biak, 1926koak, atzeraemanak (bigarrena 1913ko estalkipearen berritze gisa). Harlanduzko fatxada, kantoiko alakan begiratokia duena, jatorrizko zurezko begiratokia ordeztzen duena. Jatorriz proiektu komuna Erronda 4rekin eta Kale Berria 8rekin.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak, atzeraemanak.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.